

ZENBAT BURU

Arnaitz Gorriti

ERREPORTAIA

Esne-dunak, galtzen dagoen lanbidea?

UDALETXETIK

Gillermo Garatek HB salatu du batzordeetara gutxitan agertzeagatik

BERBETAN

Gustavo Barrenetxea, Bakearen Munduko Orkestan


KIROLA

Haundi bikain aritu da 2. mailan eta Erregionala kategoriaz igo da

BARRREN

1998ko maiatzaren 22a
V. urtea - 237. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




**Esne-dunak,
urtetik urtera gutxiago**

“Dena aurrera doa, baina egindakoa hor geratzen da” M. Gorki




Euskaldunok ez al dugu erosketarik egi-



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteak,
Elgoibarko etxeetako buzoietan publizitatea egin duten 65 merkatal etxe eta 106 publizitate orriren azterketa egin du.
Aipatutako publizitate orrietan euskarari eskainitako lekua neurtu dugu:



Kanpoko komertzioen publizitatea:

Elgoibarko komertzioen publizitatea:




Titularrak

- Gaztelaniaz
- Gaztelaniaz nagusiki
- Bietara
- Euskaraz edo euskaraz nagusiki



Testuak

- Gaztelaniaz
- Gaztelaniaz nagusiki
- Bietara
- Euskaraz edo euskaraz nagusiki





ARNAITZ GORRITI

Erusteko galaktikoak

‘Vocabula sunt notae rerum’ dio Zizeronek; hau da, hitzak gauzen ordezkioak dira. Humberto Eco, aldiz, hitzak eta gauzak pertinentizazio prozesu baten bitartez erlazionatzen ditugula dio. Roland Barthes frantsesak, berriz, eduki eta esanahi konkretu bat duen espresio batek, beste eduki eta esanahi batzuk izaten dituela, edo izan ditzakeela diosku. Azkenik, soziologiaren maxima nagusienak zera esaten digu: gauzak ez direla diruditenak.

Ziurrenik irakurle batek baino gehiagok irakurtzeari utziko zion dagoeneko, sinatzailearen pedanteria kognitiboa benetan izorrantea delako. Dena den, jakin ezazue idatzi dudan lehen paragrafoak bidea zabaltzen lagundu didala. Izan ere, zer esaten ari garen ez baldin badakigu, izarrretara dohainik bidaltzeko moduko ezustekoekin egiten dugu topo.

Jakin ezazue sinatzailea, neroni, Parrokiako Astialdi Talde batean ari naizela “lanean”, begirale gisa. Parrokiako Astialdi Taldea denez, era batera edo bestera, fedean oinarrituriko heziketa bat burutzea da gure helburua, baina ez gara ebanjeliza-

tzaileak. Parrokiako Astialdi Taldea ez da seminario bat. Hala eta guztiz ere, Parrokiako Taldea garelara entzutean, batek baino gehiagok, nolabaiteko seminarista taldea garelara pentsatzen du, artzaiak, apostoluak... Gure “heziketa” jende guztiarengana, gaztetxo guztiarengana zabaltzen saiatzen gara. Ez diegu Ebanjelioa irakurtzen, ezta Biblia ere. Gizakiak sortzen saiatzen gara, ez apaizak eta fraileak. Esan bezala, izarrretara zuzen-zuzenean bidaia. Dena dela, ez da entzun ahal izan dudan iritzi harrigarriena; izan ere, askok eta askok zera uste du: Parrokiako Taldea garelara, euskarari ez diogula errezoari besteko garrantzia ematen. Kristau izatea eta euskara maitatzea kontrajarriak baleude bezala”

“Askok uste du Parrokiako Taldea garelara, euskarari ez diogula errezoari besteko garrantzia ematen. Kristau izatea eta euskara maitatzea kontrajarriak baleude bezala”

la. Jakin ezazue, bada, euskara dela Zuhaitz Astialdi Taldearen hizkuntza ofiziala, nahiz eta euskaraz ez dakiten gazte-
txoekin gaztelania darabilgun. Hori horrela, argi dago, guretzat euskara indartzea bezain garrantzitsua dela gizakiak sortzea eta gizakiek ere euskaraz dihardute. Euskalduna naiz, harro nago, baina baita portaugaldarra banintz ere. Izarrak ikusten ari naiz. Horrela bukatu beharra lan hau!

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaitz Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidar Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriodone,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo,

Jon Suarez, Anjel Ugarteburu,

Iban Urizar, Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Bakerako bidea Irlandan

Inor gutxiak pentsatuko zuen 1.169. urte-
lan tropa anglonormandiarrak Irlandan
sartu zirenean, zortzi mende luzatuko zen
okupazio militar baten hasieran zeudenik.

Azken 30 urteotan Ipar Irlandako sei
konterrietako bizitzan, milaka hildako,
okupazio militar-polizial basatia eta irlan-
dar abertzaleak bigarren mailako hiritar
bihurtu dituen apartheid antzeko sistema
izan dira egunerokotasunaren ikur nagu-
siak. Ezaugarri hauen ondorio latzak gori-
gorian zeudela elkartu ziren lehenengo al-
diz Ulster-eko Alderdi Laboristako John
Hume eta Sinn Féin-eko Gerry Adams
(Ulster-eko komunitate katolikoaren bi al-
derdi nagusiak), bakearen bila abiatzeko
gutxieneko akordio batera iritsi beharra
ikusten baitzuten. Autodeterminazio es-
kubidearen aldarrikapena eta elkarrizke-
taren aldeko apostu garbia egin zuten.

Elkarrizketa prozesu luze baten ondo-
rioz, Stormont-eko gazteluan sinatutako
bake agiria, maiatzaren 22an onartu edo
gaitzestuko dute, erreferendum baten bi-
dez, Irlandako Errepublikako biztanleek.

Irlandarrek eta ingelesek odol kuota
altua ordaindu behar izan dute beren ba-
kerako haria topatzeko, eta berandu bai-
no lehen, egiaztatu egin dute arazoaren
izaera politikoa eta elkarrizketa ukatze-
ak gatazkaren luzamendua, sufrimendua
eta alde guztien oinazea besterik ez due-
la areagotzen.

Gurera gatozela, ezker abertzaleak ir-
tenbide negoziatuaren aldeko apostu au-
sarta egin zuen aspaldian eta horretan ja-
rraitzen du. Orain arteko saiakera guztiek
governu espainiarraren oztopoak eta erre-
presioa baino ez dituzte jaso. Herri Bata-
sunaren zuzendaritza bera gartzelan dago.

PPren gobernua jarreraz aldatzen ez
bada, ez dago konponbiderako aukerarik.
Hau horrela izanda, herri honen irtenbide-
rako itxaropenak ezin dira Madrilen bo-
rondate on ala txarraren esku utzi, abertzale-
leok landu behar dugu bidea. Euskal Her-
rian sinesten dugunok, gure Amaiurreko
akordioa lortu aurretik, sufritu beharra
egongo dela jakinda, ez dugu etsiko.

Irlandan bai, Euskal Herrian ere
bai.

Elgoibarko Herri Batasuna

Morkaiko M. E. zuzendaritza

Kiroldegiko arauak

Beste ama batzuk bezala, nire seme-
ak (3 urte eta erdikoak) Olaizaga
Kiroldegian antolatutako igeriketa ikas-
taro batera bidali nituen.

Handik gutxira non esaten didaten mu-
tikoek ezin dutela emakumezkoen aldage-
la erabili eta gizonezkoena ere ez, noski,
mutikoak ezin baitira euren kaxa aldatu eta
nik, logikoki, gizonezkoenean ezin baitut
sartu. Dirudienez arautegiak zera dio:

- Mutikoek gizonezkoen aldagelatik
sartu behar dira eta amak emakumezko-
enetik.

- Mutikoak takilak dauden gela modu-
koan aldatu behar dira banko estu batean.

- Mutikoek igerilekuko dutxa erabil de-
zakete. Igerilekura sartu edo irten aurretik
erabiltzen diren horietakoak dira (ur hotze-
koak eta jaboirik ezin daiteke erabili).

Nire kexa azaldu nuen baina arauak
arau direla eta...

Beste edonork bezala kuota ordain-
tzen dugu (hiru semeena) eta ordainean
ezin dute aldagela erabili, eta dutxari
buruz hobe ezer ez esatea. Kiroldegiak,
bere instalazioengatik, ezin badu egokia
den zerbitzua eskaini, ba ez dezala es-
kaini edo bestela, egokitu dezatela ume-
entzako gela bat, baina ganorazkoa.
Erantzunaren zain geratzen naiz.

A. Iruستا

Mendi Itzulian lagundu zenutenoi

Lerro hauen bidez Morkaiko Mendiza-
le Elkartek 1998ko Elgoibarko Itzu-
lia antolatzeko jaso dituen laguntzak es-
kertu nahi ditu. Laguntza hori eskaini du-
ten pertsona, denda eta elkarteak ondo-
ren goak dira: Ziarda, Fraile, Landa, Ar-
mueta, Bollar, Idarraga, Dori, Aitzbizkar,
Patxi, Eroski, Iraola, Xigortze, Altxolako
urak, Garay, Karakate Elkartea, Kalamua
Elkartea, Baltasar Elkartea, Elgoibarko
Udala, Haritz Dantzari Taldea, Valentin
Txurruka, Iñaki Beristain, Jaime Martínez
eta Ascensión Gómez. Eskertza hau, era
berean, Elgoibarko Itzulian parte hartu
duten guztiei luzatu nahi diegu, aurtengo
arrakasta hurrengo urtean ere errepika de-
zaten animatuz.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

KEXAK



◆ Herriko bi jubilatuetorri zaizkigu **Pedro Muguru-zako** tren apeaderoan, hau da, **Toletxen, izena gaizki jarrita dagoela esateko**. “Kartelien **Tolotxegain** ipintzen dau. **Gaizki** dao idatzitxa, ez dalako **Tolotxegain, Tolotxegain** baizik”.

TXALOAK

◆ **Elgoibarko Mendi Itzulia** egin zuen emakume taldeak **Morkaiko Mendizale Elkarte** txalotu nahi du “**mendi buelta hain ondo antolatzeagatik. Sukaldariek ere txalo handi bat merezi dute mendizaleekin izaten duten begirunearengatik**. Era berean, oso detaile polita iruditu zitzaigun jatekoa zeraman furgoneta hain une aproposan iristea Mendarora, mendi bueltako lehenengoak iritsi zirenerako hain zegoen eta”.

BAI, ESAN?



Martin Urigoitia

Etxeberria Peñakoa

Maiatzaren 15a, ostirala, gau berezia izan zen. Denok izango duzue gogoan, bai futbolzaleak zaretenok eta baita ez zaretenok ere. Athletic edo Realak, Europako Txapeldunen Liga zegoen jokoa. Elgoibarren ere nabarmen igarri zen ostiral berezia zela. Tabernak eta soziedadeak gainezka zeuden, batzuk Athleticaren partidua ikusten, besteak Realarena. Izango ziren biak batera ikusi zutenak ere. Gai honen inguruan berba egiteko **Etxeberria Peñako kidea den Martin Urigoitiani** deitu diogu.

- **Non ikusi zenuten partidua Etxeberria Peñakoe? Eta partidu ostean, zer?** - San Mamesen. Ni eta peñako beste bat jun ginan, presidentia, baina bakoitzak bere aldetik ikusi gendun partidua. Ambientia sinistezina zan, oso emozionantia. Ondiok abotsipe nao. Ni oso nerbiooso eon nitzan denbora guztian baina ohixuta nao, ze partidu guztietan oso nerbiooso jartzen naiz. Gero, parrandan ibili ginan, goizeko 10ak arte. Hurrengo egunian Elgoibarrera etorri ginan eta hemen ere parranda ein gendun.

- **Bilboko ospakizuna gehiegizkoa izan zela ere entzun da.** - Ambientia zauan baina neretzako jende gehixegi. Bigarren geratu dalako holako zelebrazia eixia exajeraua izan leike batzuentzat baina Athleticak kriston afiziu daka, gehixegi. Athletic-eko jokalarixak etxeuak diaz danak. Futbolian mobitzen diazen milloi guztixekin, Athleticaxa bigarren geratzia, Barça lelunga geratzia bezala da.

- **Etxebe lehoi bat dela modu txarrean gogorarazi zion Guerrerok Realeko presidenteari.** - Nere ustez sobran zauan komentariuxa baina holako zelebrazio batian normala da holaquak entzutia. Kontua da pike haundixa dauala Realeko eta Athletic-eko afiziuaren artian. Derbixak eon izan dianian, Anoetan bilurra pasau izan dot jendia gurekin sartu izan dalako.

- **Lehen Etxebe, orain Imaz. Ez al zaizkizue Realzaleak haserretuko?** - Ez. Imaz libre geratu dala uste dot eta ezin leike Etxebenakin konparau. Nik ez dot esaten bilbotarrak on-onak geranik baina Realekuek gorroto haundixe digute.



II. URTEURRENA

1996ko maiatzaren 21ean, 83 urte zituela hil zen **JOSE OTAEGI IRIZAR**en oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 23, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.





ESNEDUNAK

Desagertzen

dagoen lanbidea?

Baserritik jaisten dira esnea etxez etxe banatzera. Esnedunak dira. Gaur egun autoz ibiltzen dira hara eta hona baina garai batean, eta ez dira hainbeste urte pasa, astoz etortzen ziren. Gauzak dexente aldatu dira baserritarren bizimoduan. Aurrerapenak iritsi zaizkie eta kasu gehienetan onerako izan badira ere, kontua da baserriko esnea gero eta gutxiago kontsumitzen dela. Nahiago izaten dugu dendara joan eta kaxetan datorren esnea erostea. Bitartean, esnedunak gutxitzen ari dira. Elgoibarren, esaterako, momentu honetan dozena batera ere ez dira iristen lanbide honi eusten dioten baserritarrak. Izan bedi erreportaje hau omenaldi bat esnedun guztiei eskainia.

maia Zabaleta San Lorentzo bailarako Amuskategi baserrikoa da. 12 urte zituela jetsi zuen lehenbiziko aldiz behi bat, “behi mantso bat laga zien. Azpitan jarri ni-tzanean oso animala haundixa beitxandu jatan”. Etxean betidanik ezagutu du esnea etxez etxe banatzeko ohitura eta berak eusten dio gaur egun lanbide horri. “Hasi nitzanean ez nakan autuan karnetik eta astuakin bajatzen nitzan. Astotegixa egoten zan Malan eta San Lorentzo bailaratik etortzen ginan guztixak elkartzen ginan. Zazpi asto gi-txienez egoten zian. Oin, autuan askoz komodia da”. Mari Tere Astorkia, Urruzuno bailarako Urruzuno-Etxetxo baserrikoa, iritzi berekoa da, “lana oin ere in bihar dozu, baina autuakin askoz azkarro itxen da”. Jose Luis Lizarralde, San Rokeko Agarre baserrikoa berau, konforme dago neurri batean baina berak esan digunez, lehen zegoen giroa jatorragoa zen.

Jose Luisen hitzetan, “astoz bajatzen ginanian komunikazio gehixo zauan baserritarren artian. Bidian geratzen ginan eta kontuak esaten genizkion elkarri. Oin, bakoitza bere kotxian juten da eta ez gera ikusi ere itxen. Bizilagun bat ingresau dabenian ere askotan egunak pasauta enteratzen naiz. Askoz hotzaua da. Neretzat astuakin bajatziak beste grazia bat zakan. Politxaua zan eta gure arteko harremana estuaua zan”.

Makinaren abantailak

Gaur egun baserri gehienetan dago behiak jeisteko makina. Amaiak esan digunez, “erretzaua da, azkarrau eta garbixaua. Esnia zuzenian tanke batera dixea eta han lau gradutara bajatu arte hozten da bakterio guztixak hiltzeko”. Jose Luisek gaineratu duenez, ordea, “nik uste dot garbitxasun aldetik eskuakin hobe dala, ze behiren batek mamitisa badaka, nahiz eta gomak garbitxu, ez da hain erretz kentzen. Bakterioa danak hiltzeko makinia oso karua da eta guk zazpi behi bakarrik dakagunez ez digu kompensatzen holakua erosterran. Esniak ez dau dirurik ematen eta inbertsio haundirik ezin da in. Horretarako produkzio haundixa euki bihar dozu”. Hala ere,

Amaiak azaldu digunez gaur egun ia derrigorra dute era honetako makina izatea, “gero eta gehixo exigitzen dabe sanidade eta garbitxasun aldetikan. Gainera, Gurelesan bertan ere, aurretik markautako minimuak ez baditxu betetzen esniak, gitxio pagatzen dabe”. Baina, noski, Jose Luisek esan bezala, makina onak erosteko inbertsio handia egin behar da eta denek ez dute aukerarik izaten, “gu baserritxikan bizi gera eta eskerrak berdurak ere saltzen ditxugun, ze esniakin bakarrik ez dao ezer etaratzerikan”. Mari Tere iritzi berekoa



Amuskategi baserriko Amaiak 300 litro esne banatzen ditu astero.



Mari Tere, Urruzuno-Etxetxo baserrikoa, tailerrean hasiko litzateke lanean aukera balu.

da, “Gurelesari ez jako interesatzen gu bezela etxez etxe banatzen ibiltzen diazen baserriarrak egotia. Nahixao dabe produkzio haundiko jendia, eurei bakarrik salduko diuena. Eta, klaro, guri gero eta gehixo exigitzen digute eta gero eta gitxio pagatzen”.

Bezero gazterik ez

Batez beste astean 300 litro inguru banatzen ditu Amaiak, “kontraseña bat ere badakagu. Bezeruek portalian lagatzen dabe ontzixa eta lokarri bat lotuta. Lokarrixa kanpuan badao, litro bat nahi dabela esan nahi dau eta sokia ontzi barruan dauanian, bi litro”. Mari Terek esan digunez, Gabon garaian esne eskera igo egiten da, “frituak eta postriak itxeko gehixo eskatzen dabelako”. Ostantzean, gaur egun asko jaitsi da baserriko esnearen salmenta, “jendiak pentsatzen dau koipe gehixegi dakala, kolesterolantzako ez dala ona... Baina baserriko esnia egosi eta natia kentzen badiozu, esne desnataua geratzen jatzu. Gainera, baserriko esnian koipiak ez hartziarren jakakua erosten dau jendiak

eta gero, edozein modutan eindako beste gauza mordo bat jaten dia! Ez daka logikarik! Azken batian, baserriko esnia badakizu nundik ekarritxa dauan eta gaur egun garbitxasun aldetik ez dao pegarikan. Nik badakat bezeruak ume txikixak dakenak etxian eta baserriko esnia ematen diue”, esan du Amaiak. Jose Luisek ere badaki badagoela jendea baserriko esnearen kontrakoa dena, “baina lagun batek esan zian behin, gibeletik flojo zauala eta medikuari galdetu ziola ia ezin zaban baserriko esnerik hartu. Medikua baietz erantzun zion, egosi eta natia kentzeko eta listo”. Baina, jende gazteak ez omen du baserriko esnerik nahi. Arrazoia, beste batzuen artean, Mari Terek adierazi digunez, “jende gaztia oso komoia dalako eta nahixau dabalako dendan kajia erostia eta kitxo, es esnedunik, ez egosten ibili biharrik, ez ezer”. Baserriko esnea hartzera ohituta dagoenarentzat, kaxakoak ez omen du batere zaporerik izaten. Hala ere, Mari Tereren hizetan, “gure umiei eskolan eman ziuena probatzeko kajako esnia eta gustau jakuen. Etxian eskatu zebe, baina zela emango nion gure behixen esnia eukitxa!”.

Baserriko esne litroa 80-90 pezeta bitartean dago eta prezioa ez da ez igo ez jaitsi azken 8 urteotan, “ezin da. Gero eta bezero gitxio daude eta supermerkatuetan kajia 40 pezetan dakazu. Ezin laike konpetidu. Gurelesak prezio erdixan pagatzen digu baina, zer in bihar dou sobratzen dan esniakin? Hobe saltzia, gitxi pagauta egon arren, botatzia baino”, aitortu digu Amaiak.

Bertoko produktua eta kalitatezkoa

Jose Luis Lizarralde gurasoak eta aitona-amonak ezagutu ditu esnedun. Gaur egun bera dabil zeregin horretan. Gaur egungo bizimodu azkar eta estresantea ez zaio batere gustatzen Jose Luisi, “lehen askoz lasaixo bizi ginan. Baserriarria izatia ez da erreza eta nik pentsatzen dot desagertu ingo dala. Jendiak ez dau baloratzen. Alde batetik bertoko produktua jan bihar dala esaten dabe baina gero ez dao laguntasunik guretzat. Oingo gaztie ez dabe baserriko lanik hartzerikan nahi. Jende gaztiak nahixau dau kalia lan ein zortzi ordu ofizinan, asteburuak libre eta udan oporrak”.

Mari Tere Astorkia izatez Mendarokoa da baina Elgoibarrera etorri zen bizitzera ezkondu zenean. Ordura arte



Agarre baserriko Jose Luisek ustez, astoarekin jaitzen zireneko garaiak hobeak ziren.

tailerrean egiten zuen lan, “baina epoka haretan ezkontzerakuan lana lagatzen zan. Askotan damutu izan naiz. Tailerrian ordu gitxio eta jornala seguru dakazu hilero. Ointxe aldatuko neuka aukeran”. Baina, Urruzuno-Etxetxokoak ere baserri bizi dira. Goizean goiz esnatu eta egun osoz aritzen dira jo eta ke. Mari Tere egunen batean esnedunen lanbidea desagertu egingo dela sinestuta dago, “oin ere ez dakitx hamar izango geran Elgoibarren esnedun gabizenak. Egundian amaitxuko da, seguru!”. Amaiak esan duen bezala, “argi dao honek ez dabala dirurik ematen, ze bestela jende gehixo ibiliko zan lan honetan eta alderantziz da, urtez urte gero eta gitxio gera”.

Garai bateko hurrek ogitartekoa baserriko esnearen natarekin egiten zuten. Ezetz ikusi gaur egun bat bera ere? Izan ere, alde batetik ez da apenas kontsumitzen baserriko esnerik eta, bestetik, txorizoa, bollicao eta horrelakoak aukeran izanda, nork nahiko du natatz betetako merienda?

Hartzen al duzu baserriko esnerik?



LUCIANO MARTÍN
60 urte, moldeatzailea

Lehen bai baina gaur egun ez, ze debekatzen hasi ziren eta kaxakoa garbiagoa iruditzen zaigu. Hala ere, zapore hobea dauka baserrikoak.



ROSA M. LOBOS
52 urte, administraria

Haurrak jaio zirenean baserriko esnea hartzeari laga gunion. Ni lanean nago eta erosoagoa da dendan erostea ez baituzu egosi behar. Hala ere, baserrikoa hobea da.



VICENTA ECENARRO
80 urte, jubilatua

Garai batean bai, baserriko esne asko edaten genuen baina orain dendan erosten dugu, askoz erosoagoa da eta. Gainera, zapore aldetik nik ez dut desberdintasun handirik igartzen.



PERFECTO CID
52 urte, pintorea

Lehen bai baina gaur egun ez. Egia esan ez dakit zergatik, erabaki horiek emazteak hartzen ditu eta. Nik baserrikoa eta dendakoa, biak edaten ditut gustura.



BORJA FERNÁNDEZ
6 urte, ikaslea

Ez, sekula ez dot hartu baserriko esnia natiakin. Gure etxian kajako esnia edaten da, eta nik kakaua botatzen diot, goxuaua da eta.



M. JESÚS GARITAGOITIA
43 urte, begiralea

Beti, baserritarrak garenez, beti. Nik neuk ez dot esne asko hartzen baina nabaritzen zaio dendakoa baino askoz hobia dala, gusto gehixo dauka.

A H O L K U L A R I T Z A

BIKAIN

ASESORIA

Fiskala—Lanekoak
Kontabilitatea—Aseguruak

ERRENTA AITORPENAK EGITEN DIRA

Antonio Arrillaga, 4 behea
Tel/Faxa: 943 74 45 57 - Tel. mobila: 970 49 72 36

TEXTIL
HOGAR
LAGU-

Orain San Roke

Elgoibartarron euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko egitasmoari ekin dio Elgoibarko Izarrak

Euskararekiko axolagabekeria detektatu eta positibatzea da beste helburua

Maiatzaren 12an Elgoibarko Izarrak eman zuen prentsaurrekoan azaldu zutenenez, "elgoibartarron gehiengo euskararen alde dago, baina aldeko jarrerara hori lotan dagoen errezeloa daukagu". Egitasmo honen nahia "euskararen alde daudenak esnaraztea da, denon premia izango baita euskararen normalizazioa lortu nahi badugu".

Bestalde, euskararekiko axolagabekeriak eta erabakiak zaindu eta detektatu nahi dituzte. Elkarrekoen esanetan, "oso jende gutxi dago Elgoibarren euskararen kontra, baina nahiz eta kontra egon ez,

arduragabekeria dexte dago sektore batzuetan, eta honek kalte handia egiten dio euskarari". Helburua jarra negatibo hauek elkarrizketaren bidez positibatzea da.

Sentsibilizazioa areagotzeko egitasmo honek hiru lan arlo nagusi

izango ditu: kanpainak, euskararen zaintza eta jaiak. Kanpainei dagokienean, euskaldunon eskubideei buruzko kanpaina hasiko dute laster batean. Zaintzaren arloan, berriz, etxeetako buzoietan jasotzen dugun publizitate orrietan euskarak duen presentzia neurtuko dute. Azkenik, jaiak dagokienean, uztaileko lehen asteburuan Kuadrilarteko I. Kirol Jaia antolatu nahi dute.

Sentsibilizazio prozesu hau era positiboan egin nahi dutela adierazi zuten Elgoibarko Izarrak, "gure helburua jendea euskarara erakartzea baita, eta ez dauden baino urrutiago bidaltzea".



Uztailaren

Irteera

Uztailaren 6an, astelehena, goizeko 10:30ean Plaza Handian

Itzulera

Uztailaren 12an, igandea, eguerdiko 13:00etan Plaza Handian



prezioa

10.000 pta.

zer

Mendi irteerak eskulanak antzerkiak jolasak eta sorpresak...!

IZEN-EMATEA

ekainaren 12a baino lehenago:

ELGOIBARKO IZARRA

Ubitarte, 4 behea

Informazio gehiago:

74 16 26, M^a Jesus (goizez)

plaza mugatuak!

Antolatzailea:

Elgoibarko Izarrak
Atxutxiamaika B. T.

Laguntzaileak:

Elgoibarko Udala
Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia



Suspenditu egin da Trinitateetako Nagusien Tanborrada

Jende falta dela-eta, antolatzaileek erabaki hau hartu behar izan dute

Aurten ez da Nagusien Tanborradarik egongo Trinitate jaietan. Erabakia joan den zapatuan hartu zuten antolatzaileek. Eguerdiko 12:00etan lehenengo entseia egiteko elkartu baziren ere, 40 lagun baino ez zirela izango ikustean, bertan behera lagatzeko erabakia hartu zuten. Mariaje Iranzo antolatzaileak esan digunez, “izugarrizko pena daukagu denok baina argi geneukan horrela ezin zitekeela jarraitu. Lehenengo urtean 110 bat lagun elkartu ginen. Bigarren urtean 80; iaz 65 izan ginen eta aurten 40 baino ez. Iazko jende kopuru bera egongo bagina, gaitzerdi, baina 40 lagunekin ezin da irten”. Aurten, gainera, Nagusien




Tanborradarako 16 traje berri egin dituzte, Elgoibarko olagizonena. Honez gain, azken bi urteotan, Udalak emandako diruari esker, sukaldarien eta soldaduen trajeak erosi dituzte, sukaldarien 30 traje eta beste 30 soldaduen. Hauekin eta aurten egiten ari direnekin, 76 lagunentzako trajeak zeuden.

Mariajek azaldu digunez, “Udal Kultura Saileko

arduradunak erabaki dugunaren jakinaren gainean daude. Momentuz ez daukagu datorren urtean berriz antolatzeko asmorik; urtero jendea bilatzen ibiltzea ez da serioa”. Nagusien Tanborradaren etorkizuna, beraz, herritarren esku dago, ez beste inoren esku.

250 haur aritu ziren bi orduz aerobithonean

Inazio Bereziartua Musikeskolak antolatuta, dantza adarreko ikasleen kurtso amaierako jaialdiaren lehen zatia izan zen pasaden ostiralean Kiroldogian. Musikaz lagundurik eta lau irakasleren zuzendaritzapean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte, etenik gabe, 250 bat haur eta gazte aerobik egiten aritu ziren, ‘aerobithon’ deitzen den saioan. Lourdes Odriozola Musikeskolako irakasleak esan bezala, “6 urtetik aurrerako neska-mutilek hartu zaben parte, nahiz eta mutil gitxi zauden”. Ikasleek frontoian aerobik egiten zuten bitartean, tarima moduko batean igota, monitorea irakasle papera egiten zuen. Lan honetan Nerea Egaña elgoibartarra, Aitziber Arrasate ondarrutarra, Jon Aranberri arrasatearra eta, azkenik, Lourdes Odriozola irakasle elgoibartarra aritu ziren. Jaialdiaren bigarren zatia Haritz Dantzari Taldekoekin batera egingo dute ekainaren 6an Plaza Handian.



27 herritarrek jaso zuten ‘oliadura’ joan den domekan

Elgoibarko Osasun Pastoralak “Gaixoen Eguna” eta oliadura elizkizuna ospatu zituen joan den domekan. Eguerdiko 12:30eko mezan izan ziren bi ospakizunak. Pastoralakoek esan digutenez, 27 herritarrek jaso zuten oliadurako sakramentua. Lehendabizi apaizak eskuak jartzen ditu buruan eta ondoren, olio igurtzen du bekokia. Parrokian izan zen oliadurako sakramentua adinekoei eta gaixotasun larriren bat izanik ere, elizara joateko gai diren eliztarrei zegoen zuzenduta. Ohikoa baino zerbait luzetxoagoa izan zen elizkizunaren ostean argazkia atera zuten oliaduran parte hartu zutenek. Ondoren, Osasun Pastoralakoek bazkaria izan zuten, urtero egin ohi duten bezala.



29 lagunek hartu du parte Atxutxiamika en Begirale Ikastaroan

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamika Begirale Taldeak, Elgoibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin antolatutako Begirale Ikastaroa amaitu da jadanik. Ikastaroa Donostiako Urtxintxa Eskolak eman du. Iazko irailean hasi zen eta aurtengo maiatzaren 16an amaitu berri dute. Ikastaroan 29 lagunek hartu dute parte, 20 Elgoibarkoak eta 9 kanpokoak. Ikastaroan jasotako teoria guztia praktikan jarzeko aukera izango dute, Eusko jaurlaritzak homologatutako titulua jaso ahal izateko, begirale bakoitzak 120 ordu sartu beharko baititu. Goian azaltzen den argazkia, maiatzaren 9 eta 10eko asteburuari dagokio. Goizuetako barnetegian bi egun pasatu zituzten, eta beraiek esan digutenez, giro ezinhobea izan zuten.



Gurasoentzako formazio tailer arrakastatsua

Ikastolako DBH 1.eko gurasoek, seme-alabekin batera, Udaleko Ongizate Sailak bultzaturiko Drogomenpekotasunen Prebentziorako *Hordago* programan parte hartu dute. Egitasmoak izan duen arrakasta ikusita, formazio saio gehiago antolatu dituzte, besteak beste, seme-alaben autoestimaren garapena, komunikazioa eta arauen ezarpena lantzeko. *Edex* erakundeko teknikaria den Hilario Garrudok zuzentzen ditu saioak. Guztira 25 bat gurasok hartu dute parte. Bai irakasle bai gurasoek oso positibotzat jo dituzte formazio saio hauek.

● GARE irrati-zaletuen 24 orduko lehiaketa

GARE Irrati-zaletuen Elkarteak duela bost urtetik hona antolatzen duen “Elgoibarko 24 orduko irrati lehiaketa” izango da hilaren 23 eta 24an. Zapatu eguerdiko 12:00etatik domeka eguerdiko 12:00etara bitartean, 24 orduz emititzen arituko dira etenik gabe 27 Mghz.ko bandan. Karakate inguruan, Akelarre izeneko tontorrean, kanpina eta antena kokatuko dituzte eta bertatik egingo dituzte konexio guztiak. Partehartzaile guztiei diploma banatuko zaie eta amaieran irrati materiala zozketatuko



Futbola nahiago musika baino

Lorelei taldearekin eman zitzaion amaiera Elgoibarko Izarrak Pedro Migel Urruzunoren heriotzaren 75. urteurrena dela-eta prestatutako kultur egitasmoari. Kontzertua hilaren 15ean izan zen, ostirala, eta jendeak nahiago izan zuen Athletic-en eta Realaren futbol partiduak ikusi kontzertura joan baino. Antolatzaileen esanetan, “jende gutxi izan zen, baina joan zirenek bis-ak ere eskatu zituzten, beraz, gustura egon ziren Elgoibarko taldearen musika errepertorioa entzuten”.



Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailakoak Iruñean

Duela bi ostiral Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako 96 ikasle eta lau andereño Iruñean izan ziren. Leizaran bailaratik zehar egindako bidaiaren ostean, lehenik eta behin katedralera abantatu ziren. Gida batek zuzenduta, eliza eta museoa ikusi ondoren, planetarium-era bisita egin zuten. Bertan bazkaldu zuten eta arratsaldeko 18:30ak aldera, “itzultzeko presarik gabe”, Elgoibarrera iritsi ziren. Argazkian ikus daitezkeen bezala, ederki pasatu omen zuten.

Udal Batzordeen %66ra azaldu ez izana leporatu die alkateak HBko zinegotziei

“HBk lanarekiko duen interes eza” kritikatu du Guillermo Garatek

Elgoibarko alkateak, Guillermo Garatek, HBko zinegotzietz erakusten duten “lan hutsegite jarraia” eta “beraien lanarekiko interes eza” salatatu du. Datuak ere eman ditu alkateak Udalean bertan egindako asistentzia jarraipenaren arabera: “1997an deitutako Udal Batzordeen %66an ez zuten parte hartu”.

Iaz egin ziren 152 Batzordeetatik, “HB 102 Batzordeetan baino ez zen egon”, datu horien arabera. Asistentzia eza modu honetan eta sail hauetan izan da: Ongizate Sailean, (%95), Hirigintza Sailean (%73) eta Euskara Batzordean (%62). Hiru sail hauetan egin dituzte huts gehie-

nak HBko zinegotzietz. Alkatearen ustez, “horrelako hutsegite maila Elgoibarko herriari buru egitea da; beraien defendatzen omen dituzten herritarrei eta beraien botu emaileei bereziki buru egitea da. Horrelako pasotismoarekin, ulertzekoa da HBk ordezkariak gastuak bezalako gaiak, garrantzi gutxiak gaiak alegia, erabiltzea oposizioa egiteko: ez dute fundamentuzko argumenturik, ezta lan egiteko gogorik ere”. HBk 97an egindako hutsegiteak ezezik, orain arte 98an egindakoak ere aurreratu ditu alkateak. “98an hutsegite maila %44koa da, eta aurtengo hauteskundeak egongo direla kontuan eduki behar da”, amaitu du Garatek.



Garate alkatearen ustez, “fundamenturik gabeko salaketak” dira HBrenak.

● Elgoibarko parte zaharra “Interes Arkeologikoa duen Zona” izendatu dute

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak “Interes Arkeologikoa duen Zona” izendatu du Elgoibarko alde zaharra. Honek esan nahi du aurrerantzean, San Bartolome eliza, Foruen Enparantza, Nafarroa Plaza, Kultur Etxea eta San Bartolome eta Errosario kaleak arkeologikoki interesgune izango direla eta aukera egon daitekeela egunen batean, hala behar balitz, leku horietan aztarna arkeologikorik dagoen ikertzeko. Edonola ere, alde zaharrean edozein motako obraren bat egiteko asmoa dagoenean, kontuan izan behar da honako izendapen berria.



● Txakur kakak jasotzeko pintzak banatuko dira

Txakurren jabeek Udaltzainguan eska ditzakete txakurren kakak era erraz eta garbian jasotzeko pintza metalikoak eta poltsa bereziak. Elgoibarren ezezik, Eibar, Elgoibar, Mutriku, Soraluze, Mendaro eta Mallabian ere banatuko dira “Eco-Txak” izeneko pintzak eta poltsak, 625 gutzira. Elgoibarren konkretuki 150 “Eco-Txak” banatuko dira.



ESKERTZA

1998ko maiatzaren 15ean, 54 urte zituela hil zen **JOSE LUIS GABILONDO JUARISTI**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Zuzendaritza berria Jubilatu Etxean



Argazkian agertzen direnek osatzen dute **Jubilatu Etxeko zuzendaritza berria**. Joan den martxoaren 12an egin zuten Jubilatu Etxeko Urteko Batzar Nagusia eta datozen bi urteetan lanean arituko den pertsona taldea aukeratu zuten. Lehendakaria Iñaki Insausti izango da berriz. Izan ere, honakoa hirugarren aldia da. Beraz, agintealdia amaitzen denean, sei urte beteko ditu kargu honetan.

Argazkian, ezkerretik hasita, **Anacleto Fernandez** diruzaina, **Daniel Legorburu** lehendakariordea, **Miren Urkia** bokala bandera eusten, **Pedro Salinas** bokala, **Maria Mortalena** bokala eta **Iñaki Insausti** lehendakaria. Makurtuta, **Rogelio Vela** idazkaria eta **Maria Luisa Garrido** bokala.



Iñaki Insausti :

"Jubilautzat antolatzen ditzugun gauzetan jendiak ez dau parte hart-

Iñaki Insaustik 70 urte ditu eta lau urte pasa daramatza Jubilatutako lehendakari. Orain gutxi izan dute garaia zuzendaritza aldatzeko baina lehendakaritzarako hautagaririk ez denez aurkeztu, Iñaki prest azaldu da beste bi urtez jarraitzeko. Berarekin izan gara azken urteotan egin diren gauzen berri jasotzeko asmoz eta aurrera begira zein proiektu dituzten jakin nahirik.

eta gitxio jasotzia asko igartzen da. Aurtengorako lau milioiko aurrekontua dakagu. 1.800.000 pezeta kuoten bidez etaraten dou eta gainontzekua Diputazioak emandakuakin.

- Udalak ez al du ezer ematen?

- Dirulaguntzarik ez. Udalak argixa, kalefaziua eta garbiketia pagatzen ditxu. Gainontzeko gastu guztiak, mantenimientokuak eta antolatzen diazen eskursio, hitzaldi eta beste guztiaz gu arduratzen gera.

- Zenbat bazkide zarete?

- 2.100 gera baina kuotia ordaintzen dabenak 1.800 inguru. Aurten ahaleginduko gera danak ordain dezaten. Esate baterako, Jubilatutako pelukerixia eta podologia zerbitzuetara juteko karneta eta kuotia pagatzen dabela demostratzen daban agirixa erakutsi bihar dia.

- Bazkideekin arazoak, beraz.

- Garbi-garbi esango dizut. Nik uste nuan jendia beste klase batekua zala, baina behin edade batetik aurrera, bakoitzak beria bakarrik begiratzen dau, asko oso egoistak dia. Umiak baino txarrauak. Mahai bat neria dala eta ez dala, ni beti hor jartzen naizela... Zela ulertarazi horiei Jubilatuen Etxian dana dala dena! Alferrik da.

- Zein izan da lau urteotako lana?

- Lelengo lana, erretzailientzako zona bat ipintzia. Beti egoten zian problemak, ze jendiak darian erretzen zaban. Hala ere, danen gustua ezin da in eta oin


ere badaude keitzen diazenak. Gero, Eguneko Zentrua ere hemen ipini dabe eta guri tokixa kendu digute, baina... Zer ingo diogu ba! Horrez gain, hitzaldixak, bazkarixak, dantzaldixak eta holakuak antolatzen ditzugu baina oso jende gitxik hartzen dau parte.

- Irteerek, behintzat, harrera ona izaten dute, ez?

- Bai, baina hori ere gero eta gaitzaua da. Oin, ekainan 21erako Errioxa aldera juteko irteera bat antolatzen gaude. Igandian jarri dou, ze batzuk umezain egoten dia astian zihar eta ez dake libertaderik juteko. Igandian ipintzia eskatu zebe eta momentuz autobus bat bete da eta bigarrena preparatzen gabiz. Baina holakuetan ere jendiak nahi izaten dau biajia itxia, ondo jatia eta dana merke. Eta hori dana oso zaila da. Riojako biajiak, esaterako, 3.000 pezeta-kostua daka eta 2.500 pezeta pagau bihar dau jendiak. Falta dan dirua aurrekontutik pagauko dou baina jendiak ez dau hori baloratzen eta batzuk kuotia ere ez dabe pagatzen.

- Kexa asko baina, hala ere, gauzak antolatzeari ez diozue lagako.

- Ez, ez. Hori da gure zeregina eta gustura itxen dou. Hona eguneroko 200 pertsona etortzen dia eta karta jokuan ibiltzen dia gehixenak. Ba, karta kanpeonatu antolatu dou eta ez da ixa inor apuntau. Ez dakitx zer pasatzen dan! Hala ere, hor gabiz oin eskulanak antolatzeko asmuakin, aber zela urtetzen dan! Zuzendaritzako jendia gauzak itxeko ilusiuakin dauan bitxartian, aurrera!



- Hirugarren "legealdia" duzu, Iñaki. Burukominik ez?

- Bai. Gaur bertan izan deu azkena. Diputaziotikan 400.000 pezeta gitxio jasoko deu aurten. Beti gabiz numeruak ezin berdinduta




Ba al daukazu Jubilatu Etxera joateko ohiturarik?

Gazteek Gaztetxea aldarrikatzen duten neurri berean, gure herriko edadetuek ere eurentzako txoko bat izateko eskubidea daukate. Elgoibarren badago Jubilatu Etxea, eta egunero-egunero 200 pertsona inguru hurre-ratzen dira bertara, karta-jokoan egitera gehienbat. Hala ere, kalera atera gara kamera hartuta eta herritarren artean ea Jubilatuetara joateko ohiturarik duten galde-tu dugu. Era guztietako erantzunak jaso ditugu.



Ines Gonzalez

Ez daukat ohitura handirik. Noizean behin joatea gustatzen zait, lagun-en baten urtebetetzea denean zoriontzeko eta abar. Baina normalki, nahiago dut etxean lasai-lasai geratu gantxiloa egiten. Belarrietatik ez nabil oso ondo eta Jubilatu Etxean zarata handiegia egoten da niretzat.



Juan Vazquez

Oso noizean behin. Garai batean sarriago joaten nintzen baina gaur egun, emazte-arekin pasiaran ateratzea gehiago atsegin dut. Batez ere, eguraldi ona egiten duenean. Dena dela, hitzaldietara joan izan gara, dantzaldietara ere bai... Ondo dago.



Camila González

Bai, egunero joaten naiz lagunak ikusi, hitz egin eta karta-jokoan aritzera. Niretzat eguneko ilusia da, ume txikia kalera ateratzeko desiatzen dagoen bezala, horrela egoten naiz ni Jubilatu Etxera joateko. Zorionsua naiz. Irteerataraz ez naiz joaten, daukadan adinarekin asko nekatzen naiz eta.



Julian Jorquera

Egunero joaten naiz. Libururen bat irakurtzen dut, lagunekin berba egin, partidaxoren bat jokatu... Arratsaldeetan joaten naiz normalki. Ostantzean, hitzaldietara joatea ere gustatzen zait eta irteerak antolatzen dituztenean ere animatzen naiz. Gustatzen zait bidaiatzea. Orain gutxi Andaluzian izan gara.



Amparo Rivas

Ahal dudan guztietan joaten naiz. Karta-jokoan ibiltzen gara, pezeta bi jokatzen ditugu baina beti izaten dira tira-bira txikiak. Niretzat, Elgoibarko Jubilatuen Etxea ez dago oso ondo. Argirik ez dugu izaten askotan eta neguan 17:00etarako berogailua kendu egiten dute. Beste herri batzuetako etxeak ezagutzen ditut eta haiek hobeto daude.

27 urteko elgoibartar honen harrotasun osoz esan dezake musikatik bizi dela. Gustavo Barrenetxea 6 urte zituela hasi zen solfeoa ikasten eta 11 urterekin Txomin Mujika irakasle zuela ekin zion tronpa jotzeari. 13 urterekin Donostiako Musikeskolan hasi zen Jose Antonio Ballesteros irakaslearekin eta 18 urte zituen Euskadiko Orkestarako deitu ziotenean. Bertan, Melissa Musulin solistaren eskutik hasi zen klaseak jasotzen eta berehala, 21 urterekin, Iruñako Orkestako oposizioak atera zituen. Gaur egun Sevillako Orkestako tronpajolea da eta orain gutxi Bakearen Munduko Orkestan parte hartu duen Estatuko musikari bakarra izan da.

GUSTAVO BARRENETXEA

“Bakearen Munduko Orkesta beste dimentsio bat da”

– Urtean behin Chicagora joaten omen zara.

- Bai, ahal dudanean. Bertan tronpa klaseak hartzen ditut Dale Clevenger maisuarekin. Munduko onena da niretzat. Bera izan zen baita ere Melissaren irakaslea eta estilo propioa du. – **Tronpa jotzeko orduan ere estiloak al daude?**

- Bai, futbolearen bezala. Munduko leku batean edo bestean desberdin jotzen da. Azken finean instrumentuak jotzeko era desberdinak daude. Chicagon, Clevenger-ek musika jotzen irakasten du. Hau da, musikak diktatzen du teknika eta ez alderantziz. Musikeskola gehienetan, Estatu espainiarreko guztietan, teknikari ematen diote garrantzia eta tronpa, pianoa edo bibolina jotzen irakasten dizute. Clevenger-ekin beste zerbait ikasten duzu, musika

interpretatzen. Soinu aldetik ere askoz garbiagoa da, pueroagoa, proiektio haundiarekin eta detaile askorekin. Nik ez dut tronpa jotzen, nik musika interpretatzen dut tronparen bidez.

– **Amsterdam-en ere ba omen duzu irakaslerik, ezta?**

- Bai, Julia Studebaker. Amsterdam-eko orkestako solista da eta Clevenger-en ikaslea izan zen. Estilo bera dauka. Errazagoa zait Amsterdam-era joatea Chicagora baino eta sarriago joaten naiz.

– **Sevillan 6 tronpajole zaudete.**

- Bai, baina ni naiz estilo konkretu bat daukan bakarra. Gainontzeko guztiek ez dute estilorik. Arazoa hori da, Estatu espainiarrean ez dagoela estilo propiorik, eta pena da.

– **Elgoibarren badugu beste tronpajole bat, zure ikaslea izandakoa.**

- Bai, Andoni Mujika. Asko gustatzen zaigu elkarrekin jotzea eta biok daukagu estilo antzekoa. Andoni ez da sekula Chicagon izan baina diskak ere badaude, asko entzuten du, musika bizi du eta hori da garrantzitsuena.

– **Bakearen Munduko Orkestan izan zara. Kontaiguzu.**


- Duela bi urte Sir George Solti zuzendari handiak sortu zuen. Bi kontzertu bakarrik egin dira orain arte eta ateratako dirua herrialde azpigaratuetako haurrek musika ikasteko aukera izan dezaten zuzentzen da. Munduko musikari onenek hartzen dute parte. Lehenengo kontzertua duela bi urte izan zen eta Dale Clevenger eta Melissa Musulinekin parte hartu zuten. Aurten niri deitu didate eta nik berehala eman nuen baietza.

– **Ohore bat izango zen, ezta?**

- Dударik gabe, izugarriko esperientzia da munduko onenekin jotzea. Niretzat idoloak izan direnekin entsaiatu, gosaldu, hitz egin, jo nuen... Eta hori ez da sekula ahazten. Beste dimentsio bat da.

– **Noiz arte Sevillan, Gustavo?**

- Sevillako Orkestra Estatuko onenetarikoak da, onena ez bada. Niretzat musika jotzea da kontua, eta berdin zait Sevillan edo Donostian izan. Nire helburua onenen artean jotzea izan da beti. Sevillakoa baino hobea den batean eskaintza egiten badidate, ni prest joateko.



BESTEAK ESANA
 “Harrigarria da Gustavo noraino heldu den! Eta oraindik ikusteko dago noraino iritsiko den!”
 TXOMIN MUJIKA, musikoa



Rosa Mari Vallejo

Rosa Mari ez du gogoratzen noiz egin zuen alde Elgoibartik. “Langa-bezian geratu nintzen eta Gasteiztik 5 km.ra dagoen Mendiola he-

rrian lagun bat neukanez bertara joatea erabaki nuen. Denbora gutxira Gasteizen hasi nintzen bizitzen. Lakuan lana topatu nuen eta dagoeneko 10 bat urte daramatzat lan honekin”.

Rosa eta bere bikoteak seme bat dute, Eneko. “Hiri hau benetan da zoragarria seme-alabak dituzten bikoteentzat. Auzo bakoitzak bere zentro zibikoa dauka, baita igerilekuak, Kiroldegia eta ludoteka ere. Haurrentzako oso prestaturik dagoen hiria da. Semerik izango ez banu, hala ere, hiri handiago bat nahiago nuke bizitzeko”.

Elgoibarrera gero eta gutxiago etortzen dela aitortu digu, lagun mordoa egin baitituzte bertan. “Etxekoak ikustera joaten gara baina askotan Mutrikuko etxean elkartzen gara, bazkari baten bueltan”.

Gasteizen bizi denetik euskara asko sakondu du. “Elgoibarko lagun baten amak beti euskaraz egin zidan eta asko ikasi nuen. Gero Gasteizera etorri nintzenean, eta langabezian nengonez, euskaltegian hasi nintzen”. BARREN ere jasotzen du, beraz, Elgoibarrera gutxi etortzen bada ere, elgoibataron berri izateko modurik badu.



bidaia agentziak babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

Maria Zubiaurre Arregi

(1894-1971)



- 1894ko abuztuaren 15ean jaio zen San Migel auzoko Metalkua baserrian.
- Sei anai-arrebetatik bosgarrena zen.
- Gaztetan, moja frantsesekin ibili zen ikasten, Don Antonio Arrillagak klinika zeukan lekuan (Santa Ana kalean). Etxeko lanetan eta baratzean laguntzen zuen.
- 12 urterekin umezurtz geratu zen. Geroago apaiz baten etxean egon zen lanean eta ikasten.
- Gaztetan San Migeleko erromeriara joatea eta sasiko potzu ospatzea gustatzen zitzaion.
- 18 urterekin Bergarako bi ahizpa ezkongaberen etxean zerbitzatzen hasi zen.
- 24 urterekin Pako Arriolarekin ezkondu eta 9 seme-alaba izan zituzten. Harrez geroztik, beti bizi izan zen Gelatxorrota baserrian. Zoritxarra ere ezagutu zuen. Bi alaba istripuz hil zitzaizkion, 8 eta 3 urterekin, eta beste bat jaio eta 8 egunera.
- Abarketak josten zituen. Neska asko eduki zituen eta alaba Felisak trebetasun benetan handia eskuratu zuen lan honetan.
- San Lorentzoko jaietan gonbidatuz betetzen zitzaion etxea. Sinesmen handikoa izanik, kongregazioetako kidea zen, Milagrosaren eta Kontzeptzioaren bederatziruaren asko egindakoa. Zenbat meza entzundakoa zen emakume hau! Beti ere, hutsik egin gabe. Arantzura eta Lourdesera ere joan izan zen.
- Familia girokoa, irribartsua, hizlaria, esku-zabala eta borondatetsua zen. Ahizpa batek esaten zion: ‘zu Amabirjinaren lehengusina izango zera!’.
- Ezaguna eta estimatua zen herrian. Lagun artea eta jaietan karta jokoan egitea gogoko zuen. Patxi Arriola ehiza txapelduna biloba zuen Mariak.
- 1971eko urriaren 19an hil zen, 77 urterekin.

Juanito Gorostiza

Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 943 74 26 21

OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15 ● ☎ ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

60 lagun izan ziren Elgoibarko Mendi Itzulia

Eguraldi eta giro ona izan zela azpimarratu dute antolatzaileek

aitor zabala



Joan den igandean, hilak 17, Morkaikok antolatutako Elgoibarko Mendi Itzulia izan zen. Aurreko urtean adina jende bildu ez bazen ere, “saio arrakastatsua” izan zela azpimarratu dute antolatzaileek, “mendizaleen arteko alaitasun eta tenore onarengatik”. Eguraldia ere lagun izan zuten egun osoan zehar. Beraz, dena ezin hobeto suertatzeko elementu guztiak bildu ziren. Aurtengo edizioan, mendizaleek bi

aukera izan dituzte: azken urteotako ibilbidea egitea, Altzolatik buelta emanez egiten dena, alegia, eta 30 km. dituen, edo, aspaldiko ibilbide zaharra, Mendarro ere hartzen duena eta 40 km. dituen. Mendi buelta zaharra amaitu zuen lehenengoa Kerman Moreno izan zen eta 7 ordu eta 20 minutu eman zituen ibilbidea amaitzeko. Beste ibilbidea, hau da, laburragoa dena, 7 ordu eta 45 minututan amaitu zuten lehenengoek. Azken taldea, hamaika ordu pasatxora iritsi zen. Aipagarria da talde honetan zeudela mendizale edade-tuena eta gaztetxoena. Antolatzaileek esan bezala, “itzuli honetan ez dago ez garaile ez garai-kurrik, eta sasoi ederra erakutsi zuten denek”.

Itzulia amaitu ondoren, 60 partehartzaileak Merkatu plazako goiko solairuan elkartu ziren Morkaikok eskainitako bazkaria jateko. Zuzendaritzakoen izenean, “eskerrik beroenak lagun izan zaituztegun guztioi”.

● Haurrentzako ur-parkea izango da larunbatean, hilak 23

Kiroldegiko igerilekua itxita egongo da ohiko erabiltzaileentzat, bihar, hilak 23. Goizeko 9:30etik 13:30ak arte eta arratsaldeko 16:00etatik 18:30ak arte haurrentzako ur-parkea bihurtuko da igerilekua. Goizeko saioan Eskolarteko Kirolletan dabiltzanek eta Igeriketa Eskolakoek hartu ahal izango dute parte. Arratsaldean, berriz, haur guztiek izango dute aukera igerilekuko ur-parkean jolasteko. Bazkideek sarrera doan izango dute eta bazkide ez direnek sarrera ordaindu beharko dute.

K I R O L A L B I S T E A K

arrasate press

EMAITZAK

Pilota

Lagunak Pilota Txapelketa

(98/05/15)

Lopez 6 - Konde 18 (Benj. aurre.)

Mendibil 11 - Oiarzabal 18 (Benj. aurre.)

Guemez 13 - Martinez 18 (Benj.)

Iriondo 18 - Ulazia 18 (Benj.)

Arrillaga 18 - Loiola 11 (Kad.)

Futbola

Haundi 1 - Burgos 1

Eskubalola

Aloña Mendi 20 - Pagoaga Elg. 14 (Jub. nes.)

Arrate 26 - Tecnomeca 25 (Jub. mut.)

Unceta Elg. 22 - Bergara 3 (Kad. nes.)

Pneumax Elg. 15 - Bergara 6 (Kad. mut.)

Hernani 22 - Elgoibar 22 (Seniorrak)

Idarraga Kafeak 1. saria

Haundiko jokalarri erregularrena 97/98

Jokalaria Puntuak

1- Gorka Guarrotxena 58

2- Miguel Díaz 46

3- Jabier Gurrutxaga 36

4- Koldo Agirregomezkorta 35

5- Karlos Madina 32

6- Eneko Barrenetxea 32

7- Iker Atxabal 27

8- Ander Iruretagoiena 26

9- Unai Aranburu 25

10- Gaizka Lazarobaster 21

11- Joseba Igartua 17

12- Mikel Elkoro-Iribe 17

13- Xabier Alonso 17

14- Jon Argoitia 11

15- Aiert Zinkunegi 11

16- Aitor Trebiño 9

17- Igor Prieto 8

18- Mitxel Badiola 6

AGENDA

Eskubalola, Olaizaga kiroldegian

KOPAKO TXAPELKETA

Larunbata, 23

17:00 Unceta Elg. - Bidebarrieta (Kad. nes.)

18:30 Elgoibar - Urnieta (Seniorrak)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 23

14:30 Pedrusko - Ostadar (2. erreg.)

17:00 Elgoibar - Boskozaleak (2. erreg.)

Arkaitz Martinez elgoibartarra, bigarren Elgoibarko txirindulari lasterketan



Arkaitz Martinez elgoibartarrak bigarren A postua eskuratu zuen joan den domekan jokatu zen jubenilen lasterketan. Lagun Taldeak antolatutako XVIII. Txirindulari proban, 162 partehartzaitetik 77k baino ez zuten lortu 101 km.ko ibilbidea amaitzea. Txapelduna Bruesa taldeko David Alonso izan zen, 2h30'17"ko denborarekin. Muebles Ordizia taldean korritzen duen Arkaitz Martinez bigarrena iritsi zen helmugara, irabazlea baino 12 segundo beranduago eta gainera, lehen elgoibartarrari ematen zaion saria jaso zuen. Hirugarren lekuan Fagor taldeko Asier Atxa ailegatu zen. Argazkian, eskumatik bigarrena da Arkaitz.

Eskubaloiko Kopako partiduak

Asteburuan partidu oso garrantzitsuak jokatu dituzte eskubaloitako taldeek. Larunbatean, hilak 23, nesken kadete mailako Unzeta taldeak, Liga eta Federazio Kopa irabazi ondoren, Gipuzkoako Kopako finaleko lehen partidua jokatu du Kiroldegian arratsaldeko 17:00etan, Donostiako Cortes Blanco taldearen aurka. Arratsaldeko 18:30ean, berriz, senior mailako taldeak Kopako azken partidua jokatu du Urnieta-aren kontra. Kopako txapelketa liga



modura jokatzen ari dira. Elgoibartarrek irabaziz gero, Kopako txapeldunak izango dira. Galduz gero, sailkapenean bigarren dagoen Hernaniko taldeak zer egiten duen ikusi beharko da. Eskubaloitako Elkartekoek zaletu guztiak partiduak ikustera joan dai-

tezen animatu nahi dituzte, partidu hauek berebiziki garrantzia baitute. Azkenik, San Bartolome Ikastolako Ikas-Gorribeltz infantil taldea, Gipuzkoako Txapelketako finalerdietan ari da buru belarri.

Ana Etxaniz eta Maialen Mora, 200 m.tan eta pisua jaurtiketan irabazle

Joan den zapatu goizean, Mintxetan jokatu ziren Gipuzkoako Pistako Atletismo Txapelketan, infantil mailako 182 neska-mutilek hartu zuten parte. Bi elgoibartar nabarmendu ziren batez ere. Maialen Mora 10'06 metro jaurti zituen pisuan eta beraz, lehenengo postua eskuratu zuen. Ana Etxanizek, berriz, 200 m.ko lasterketa irabazi zuen

30'90 segundoko denbora eginez. 600 metrotan ere hartu zuen parte eta laugarren sailkatu zen, 1'49"45 ehunenekorekin. Lasterketa berean, Alaitz Merino elgoibartarrak korritu zuen eta 10. lekuan geratu zen. Gipuzkoako txapelketako bigarren zatia zapatuan, hilak 23, jokatu da Eibarko Unben. Alaitz Merino eta Ana Etxaniz 1.000 metrotan arituko dira eta azken honek luzera jautzian ere hartuko du parte. Azkenik, Nuria Revuelatak 150 metrotan korrituko du.



97/98 LIGA AMAIERA

Haundik 2. mailan finkatzea lortu du

2. erregionaleko taldea, mailaz igo da eta ligako txapelduna izan daiteke

Haundik liga amaitu berri du. Joan den zapatu arratsaldean jokatu zuen azken partidua Mintxetan Burgos taldearen aurka. Emaitza 1 eta 1 izan zen. 97/98 denboraldian Haundi bikain aritu da. Jose Ramon Zabala klubeko presidentearen esanetan, bigarren mailan aritu dela kontuan izanda, “aurrez espero genuenaren gainetik ibili dela esan leike lasai asko. Hasieran, 2. mailan mantentzia zan erronka haundixena, baina azkenian 8. lekuan amaitxu dau eta kategorixan finkatu ein da. Talde gaztia eta ona da eta entrenatzailian lana ere bikaina izan da. Haundi futbol talde arrunt bat baino gehixo da, hain

ondo ibiltzeko beste sekreturik ez dao”.

Club Deportivoko afaria

Hilaren 30ean, zapatua, klubeko urte amaierako afaria izango da Kiroldegian. Jokalari guztiak, klubeko bazkideak eta zaletuak elkartu ohi dira afari honetan. Txartelak 2.500 pta.ren truke eros daitezke Kaia, Jai-Alai, Aterpe eta Urkiola tabernetan. Afarian futbola



utziko duten Koldo Agirregomezkorta, Miguel Díez eta Ander Iruretagoienari plaka bana emango zaie.



Xabi Alonsori urrezko garaikurra

Haundiren Ligako azken partidua, Xabi Alonsoren agurreko partidua izan zen. 12 urtez Haundin jokatu du eta klubean 20 urtetik gora daramatza. Partiduaren hasieran, Jose Ramon Zabala presidenteak urrezko garaikurra eman zion Alonsori. “Garaikur hau 10 urtez Haundixan ein dabenak jasotzen dabe, eta orain arte oso gitxik jaso dabe”. Beste hiruri eman izan zaio urrezko garaikurra Alonsoren aurretik: Lasari, Moskoteri eta Apellanizi.

2. erregionala mailaz igo da

2. erregionaleko taldea igoera fasea jokatzen ari da. Dagoeneko 1. erregionalera igoera ziurtatuta dute, joan den zapatuako partidua irabazi egin baitzuten. Orain, ligako txapela dago jokoan. Zapatuan, hilak 23, jokatuko duten partidua erabakiorra izango da, irabaziz gero, euren taldeko buru geratuko lirakeelako. Maila honetako txapeldun izateko azken partidua, berriz, beste taldeko irabazlea izan den Hamaika Bat taldearen aurka jokatu beharko dute. Zabalaren iritiz, “beheko taldeetatik datozen gazte elgoibartarrak dira denak eta euren neurriko kategoria da 1. erregionala”.



Guarrotxena, Haundiko jokalaririk erregularrena

Haundiko jokalaririk erregularrena Gorka Guarrotxena eibartarra izan da 97/98 denboraldian. ‘Idarraga I. Saria’ izenpean, denboraldi hasieratik amaierara arte, hainbat pertsonak, tartean Haundiko entrenatzaileak, zaletuek eta klubeko kideek, jokalari bakoitzari puntuak eman dizkiote astero, beti ere, jokalari bakoitzaren erregulartasuna aintzat hartuta. Horrela, lehenengo postuan Gorka Guarrotxena dago 58 punturekin.



● Kadeteen txirrindulari lasterketa

Elgoibarko Txirrindularien Lagun Taldeak antolatuta, ‘Elgoibarko Lagun Talde IX. Saria’ jokatuko da bihar, hilak 23. Ibilbidea 53 km.koa da eta kadete mailako txirrindulariek hartuko dute parte. Irteera Plaza Handian izango da arratsaldeko 16:30ean eta helmuga Santa Klaran.

● Iskualdeko futbol 7 txapelketan izena eman daiteke

Aurten Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek bat egin dute Futbol 7 deritzon txapelketa antolatzeko. Partiduak ekainaren 20tik uztailaren 26ra bitartean jokatuko dira Ipu-ruan eta Elgoibarko Kiroldegian. Talde bakoitzak 6.500 pta. ordainduko ditu izena ematerakoan. Xehetasun gehiagorako edo izena emateko 74 44 15era deitu.

K I R O L A L B I S T E A K

Galiza Etxeak antolatutako *Dia Das Letras Galegas* jaiak amaitu dira

Galiza Etxeak antolatutako jai egitarauko ekitaldi nagusiak joan den asteburuan izan ziren. Horien artean, Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Ourenseko *Do Carballiño* Dantza eta Gaita Taldeak eskaini zuten ikuskizuna nabarmendu zen. Jakin dugunez, inguruetako herrietan egiten diren Galiziako jaien artetik, Elgoibarren bakarrik egiten dute dantza elkarrekin euskaldunek eta galiziarrek. Joan den domeka goizean, Plaza Handian ordu eta erdiko folklore saioa ikusteko aukera izan zen. Aparteko eguraldiak lagunduta, Haritz Dantzari Taldekoek Durangaldeko Erregelak, Arratiako jotak eta Iurretako 'Dantzari' dantza-zikloko hainbat pasarte erakutsi zituzten. Galiziarrek, euren aldetik, gaita eta tanbor saioaz gain, Ourenseko dantzak ere eskaini zituzten. Bukaeran, opariak elkartrukatu zituzten Haritz Dantzari Taldekoek, alkateak Udalaren ize-nean, *Do Carballiño* Taldekoek eta Galiza Etxekoek.

Beste ekitaldirik ere izan zen Galiziarren jaietan. Herri Eskolako jai gunean, jakien dastaketa eta *Montecarlo* orkestaren berbenak izan ziren nagusi asteburu osoan.



Eibarko Kezka Dantzari Taldearen omenaldia Haritz Taldeari

Euskal Jaia egiten dihardute maiatzean zehar Eibarren. Joan den larunbatean, Untzaga Plazan Dantzari Eguna ospatu zen, 200 dantzarik parte hartu zutelarik. Ekitaldian Eibarko Kezka Dantza Taldekoek Elgoibarko Haritz Dantzari Taldeetik jasotako laguntza eskertu zuten Haritz-en 25. urtemuga dela-eta. Argazkian, Jose Inazio Sarasua, Haritz Taldeko zuzendaria, opariak jasotzen agertzen da. Azken 7 urteotan, Eibarko Kezka, Debako Gure Kai eta Elgoibarko Haritz Taldeko dantzariak batera egin dute lan.



Idoia Diar-zabal

IKASLEA - 17 URTE



1 - Merezi al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza? - Bai, merezi dau, dudarik gabe. Gauza politx asko daude. Eta Elgoibarren bizitzia ere gustatzen jata, hiri haundi baten baino gehixo.

2 - Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batengan? - Hori ezin da erantzun parian tokau arte, ze igual oin pentsatzen dozu baietz bai-

na gero erabakixa hartzia ez da hain erreza.

3 - Hil eta gero? - Pentsatzen dot zeozer egongo dala, baina ez dakitx zer.

4 - Lehenengo ni eta gero besteak. - Bai, ze bestela zapaldu itxen zaitxue. Baina beti bestiei kalte ein gabe.

5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Gurasuei eta lagunei, segun eta zein arazo dan.

6 - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizitza? - Ondo eta lasai bizitzia, lana eukitzia, familia bat... Eta bizia, txokolatia.

7 - Sinesten al duzu politikan? Emango al zenuke botorik? - Ez, hor dao baina ez jata gustatzen. Ez jata nterusatzen eta ez dot ulertzen. Ezin dot botorik eman baina uste dot ez nukela botauko.

8 - Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera? - Oin dala asko insumisiuan aldeko manifestazio batera.

9 - Euskalduna naiz eta harro nago? - Bai, iruditzen jata badakagula motibuak horretarako.

10 - Zerk galeratzen dizu loa? - Oin examinek baina normalian ondo itxen dot lo.

11 - Elgoibarko Gaztetxean sartzen al zara?

- Bai, ambiente ona dao eta gustatzen jata. Herri guztietan egon biharko litzake gaztientzat leku bat.

12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? - Ez dot uste. Preokupau itxen dia baina sufritu...

13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? - Gehixen entzuten dakixela eta hitz egin leikela eurekin, eta gutxien, gehixegi preokupatzen diazela ez dauanian motiborik, baina hori ere igual normala da.

14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan? - Bai, bakoitzak fregaua itxeko egun bat daka eta nere ohia ni itxen dot eta nere kuartua nik jasotzen dot.

15 - Alkoholik gabe ondo pasa daiteke? - Bai, alkohola ez da derri gorrez edan bihar ondo pasatzeko. Alkoholakin ere pasau leike gaizki.

16 - Irakurri duzun azken liburua? - "Kalamidadeen liburua", eskolan bialduta.

17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Sexua maitasunakin onduen baina bat aukeratzekotan, igual maitasuna sexurik gabe.

18 - Birjinitatea traba ala bertutea? - Ez bata eta ez bestia. Bere momentua daka eta ailegau bihar danian ailegaten da.

19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu? - Berakin berba ingo naban nere jarrera esateko. Hitz egiten konpontzen dia gauzak, ez?

20 - Sinesten al duzu betirako maitasunean? - Bai.



BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 HHI (EPA) 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

A G E N D A

22

ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren **BILERA**
 Gaztetxean

19:30 KALE ANTZERKIA
 Taldea: *Oihulari Klown*
 Madalan
 Antolatzailea: Errotatxo

19:30 HITZALDIA ETA EZTABAIDA
 Gaia: "Mendiaren erabilera eta erasoak"
 Hizlariak: Pako Iriondo eta Inma Mugerza
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Haizea E. T.

20:00 BAKEAREN ALDEKO ENKARTELADA
 King-Kong parean
 Antolatzailea: HB

22:00 KONTZERTUA
 Taldeak: *Likidillo*
Antifaszista eta *Juanito Berrako*
 Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
 "Happy together"
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

23

larunbata

9:00 EHIZA-TXAKURREN LEHIAKETA
 Albitxurin
 Antolatzailea: La Unión

10:00 GURASOEN EGUNA
 Pilar ikastetxean

16:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA
 Irteera Plaza Handian eta helmuga Santa Klaran
 Antolatzailea: Lagun Taldea

19:30-22:15 ZINEA
 "El coleccionista de amantes"

22:00 KONTZERTUA
 Taldea: *Piztiak*
 Gaztetxean

24

igandea

10:00 PITXOI TIRAKETA
 Albitxurin
 Antolatzailea: La Unión

12:30 ERRALDOI EGUNEKO KALEJIRA
 Antolatzailea: Haritz D. T.

16:30-19:30-22:15 ZINEA
 "El coleccionista de amantes"

25

astelehena

22:15 ZINEA
 "El coleccionista de amantes"

26

asteartea

19:00 HITZALDIA
 Gaia: "Hirugarren adina: errealitate sozial bat"
 Hizlaria: Mikel Lizarralde
 Jubilatuta Etxean

28

osteguna

22:15 ZINE KLUBA
 "Fotografiando Hadas"
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

29

ostirala

20:00 IKUSENTZUNEZKOA
 Izenburua: "K2 Baltistan"
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Morkaiko M. E.

22:15 ZINE KLUBA
 "Fotografiando Hadas"
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

ZINEA



Zuzendaria: Gary Fleder.
Antzezleak: Morgan Freeman, Ashley Judd, Cary Elwes.

El coleccionista de amantes

Alex Cross doktorea, Washington-en bizi den polizia eta psikologo forensea da. Egun batean, Ipar Carolinako Unibertsitatean ikasten ari den bere iloba desagertzen da. Itxura denez, bahitu egin dute. Alex Cross bere ilobaren bahiketa ikertzen hasten denean, beste zazpi emakume ere desagertuta daudela jakingo du.

● **Ehiza-txakurren Trinitate Sari Nagusia**

La Unión Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatuta, zapatuan, hilak 23, txakurrak ehizan aritzen diren lehiaketako Trinitate Sari Nagusia jokatu da Albitxuriko zelaian. Goizeko 9:00etan hasiko da lehiaketa. Ehiztariak 1.000 pta. ordaindu beharko ditu txakur bat eramateagatik eta bi baino gehiago eramanez gero, izen-ematea 800 pta.koa izango da. Ingeles eta arraza kontinentaleko txakurrak arituko dira galeperrak harrapatzen. Eguerdikertera hasiko da sari banaketa. Izena emateko telefonoak hauek dira: 907 49 86 22 eta 943 74 22 38.

● **Bakearen aldeko enkartelada**

Elgoibarko HBk deituta, gaur, hilak 22, enkartelada egingo da King Kong parean arratsaldeko 20:00etan. Enkarteladaren lema "Irlandan bai, Euskal Herrian ere bai" da.



azkue

● **Igandean, hilak 24, Erraldoi Eguna ospatuko da**

Haritz Euskal Dantzari Taldearen 25. urteurrena dela-eta, igandean, hilak 24, inguruko herrietako erraldoien kontzentrazioa egingo da. Udalak duela gutxi erositako Erraldoi Konpartsarekin batera Deba, Mutriku, Oñati, Markina, Azkoitia, Mendaro, Ondarroa eta Eibarko konpartsak bilduko dira, denera 30 erraldoi eta 35 buruhandi. Eramaileak denak Haritz Taldeko kideak izango dira. Musika arloan, Herriko Dultzaineroak, Trikitilari Eskolako ikasleak eta Udalaren Txistulari Taldekoak arituko dira. Eguerdiko 12:00etan konpartsa guztiak Plaza Handian bilduko dira eta 12:30ean, kalejira hasiko dute.

● **Gurasoen Eguna Pilar ikastetxean**

Zapatuan, hilak 23, Gurasoen Eguna ospatuko dute Pilar ikastetxean. Goizean jolasak, tailerrak, denborapasak, futbito partiduak etab. izango dira. Bazkal ostean, berriz, bingoan, mus txapelketan eta tonbolan parte hartzeko aukera izango du nahi duen guztiak. Guraso, ikasle eta ikasle ohi guztiak jaira gonbidatu nahi dituzte Pilar ikastetxeok.

● **Oihulari Klown Elgoibarren**

Errotatxo Elkartek antolatuta, gaur, hilak 22, drogen historiari buruzko kale antzerkia izango da Oihulari Klown taldearekin arratsaldeko 19:30ean hasita. Oihulari Klown taldea hainbat herritan ari da lan hau antzezten Euskal Herriko prebentzio talde guztiek antolatutako kanpainaren barruan. Antzerkia Madalan izango da.

● **Ibilaldia 98rako autobusak**

Elgoibarko Izarrak autobusa antolatu du maiatzaren 31n Mungian izango den Ibilaldia 98rako. Joan nahi dutenek Elgoibarko Izarran eman dezakete izena hilaren 29a baino lehen (74 16 26).

● **Pitxoi tiraketa**

Domekan, hilak 24, La Unión Elkartearen eskutik, Trinitate Saria jokatu da Albitxur, baina oraingoan pitxoi tiraketan. Izen-ematearen zenbatekoa 5.000 pta.koa da eta aurreko eguneko 19:00ak aurretik egin behar da La Unión-en egoitzan. Goizeko 10:00etan hasiko da txapelketa eta probintzia arteko ehiztariak har dezakete parte. Beterano, emakumezko eta gaztetxoek sailkapenak egingo direnez, kategoria guztietan banatuko dira sariak. Lehenengo 10 sailkatuek jasoko dute saria. Aurreko eguneko arratsaldeko 17:00ak baino lehen izena ematen dutenen artean urdaiazpiko bat zozketatuko da.

T R A N D A R R

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
23	Etxeberria* (Errosario)	Anduaga
24	Etxeberria* (Errosario)	Anduaga
25	Yudego	Yudego
26	Zabaleta	Zabaleta
27	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
28	Escala	Escala
29	Bidasolo	Bidasolo

* (eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

24 igandea Idarraga

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Nick Willing.
Antzezleak: Toby Stephens, Emily Woof, Ben Kingsley.

Fotografiando hadas

1917an, Ingalaterran gertatutako benetazko kasu batean oinarrituta dago. Protagonista argazkilaria da. Ezkondu eta egun gutxira, argazkilaria emaztea hil egiten da. Erabat nahastuta eta galduta ibili ondoren, neskato batzuen argazkietan 'maitagarri' batzuk agertzen direla entzuten du. Neskato hauek bizi diren herriskara joaten da gertaera gertutik ezagutzera.

Lana

◆ **ESKAINZA** ◆

◆ Pertsona bat behar da, euskalduna ahal bada, umeak zaindu eta etxeko-lanak egiteko. ☎ 74 01 65 (gaueko 20:30etik aurrera).

◆ Tabernarako neska behar da aste-buruetan lan egiteko. Euskalduna. ☎ 12 73 34

◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 74 01 80

◆ Neska behar da tabernako barran lan egiteko. 19-25 urte bitartekoa. ☎ 74 45 87

◆ Ordenadoreen teknikoa behar da. Esperientzia baloratuko da eta 26 urtez azpikoa izatea. Interesatuak bidali kurrikuluma lehenbailehen **Elgoibarko 8 posta kutxatilara**.

◆ Neska euskalduna behar da 2 ume zaintzeko. ☎ 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14 (bulego orduetan)

◆ Jendea behar da rebarbatzaile lana egiteko. Interesatuak deitu ☎ 15 18 16 telefonora.

◆ **ESKAERA** ◆

◆ 30 urteko neska euskaldunak haurrak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Esperientziarekin. ☎ 75 91 93

◆ 44 urteko emakumea eskaintzen da zaharrak zaindu edo/eta etxeko lanak egiteko. ☎ 74 09 06/74 10 55

◆ Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun osoa. Esperientzia daukat. ☎ 19 21 28 (Axun)

Agurrak

OHARRA

Aste honetan zorion agurren ataleko zenbait argazki galdu egin dira akats informatiko baten erruz. Ahal zirenak errekuperatu egin ditugu baina, agian, bat edo beste faltako da. Barkatu eragozpenak.

◆ Zorionak **amama Juaniri** hilaren 19an urteak bete zituelako. Familia guztiaren partez, bereziki iloban partez.

◆ Zorionak **Unai Segundori** hilaren 24an urteak beteko dituelako. Aritz Tobalina, Haritz Roteta eta Adrian Lamelassen partez. Ez gehiegi ikasi!

◆ Zorionak **Judith Zabalar**i maiatzaren 21ean urteak bete zituelako. DBHko lehenengo mailakoan partez, batez ere mutilen partez.

◆ Zorionak **Rubio** eta **Inesi** hilaren 23an ezkontzen direlako. Eguraldi ona egin dezala eta ez platerik apurtu! Loinaz eta Anderren partez.

◆ Zorionak **Antxon Ezenarrori** maiatzaren 16an 13 urte bete zituelako. Pilar eta Ikastolako lagunen partez.

◆ Zorionak **Gemma Fernandez**i hilaren 24an urteak beteko dituelako. Zaira, Jessica eta klaseko mutilen partez.

◆ Zorionak **lehengusu Davidi** hilaren 21ean urteak bete zituelako. Zorionak, baita ere **Javier Agirrer**i hilaren 25ean urteak beteko dituelako. Familia osoaren partez eta bereziki Miren potxolaren partez.

◆ Zorionak **Koldori** zure 18. urtebetetzean. 27tik aurrera kontuz geriatrikoekin. Ondo pasa eta ez ahaztu aitxita flipaua eta 3. adinekoak.

◆ Zorionak **Asier Atriori** gaur urteak bete dituelako. Aritz Tobalina, Haritz Roteta eta Adrian Lamelassen partez.

◆ Zorionak gure **pelutxeari** hilaren 17an urteak bete zituelako. Zure lagunen partez.

◆ Zorionak **Egoitz Arriolari** Gabi eta Unairen partez gaur 9 urte bete dituelako.

◆ Zorionak **Lourdes Ansolari** maiatzaren 25ean 26 urte beteko dituelako. Etxekoan eta Sanpruren partez. ◆ Zer, **Nere**, ahaztuta geundela uste zenuen? Ba, bizitzari emozio pixka bat eman behar zaio, neska! Zorionak lagunen partez!

◆ Zorionak **Judith** eta **Ainarari** maiatzaren 21 eta 23an 13 urte betetzeagatik. Lagun guztien partez.

◆ Superzorionak **Ion Sanchezi** maiatzaren 18an urteak bete zituelako. 5. mailako mutil guztien partez. Zorionak baita ere Andoni Gabilondori maiatzaren 21ean urteak bete zituelako. Ikastolako 5. mailakoan partez.

◆ Zorionak **Luzia Dieguezi** maiatzaren 6an 10 urte bete zituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Oscar Cordoni** hilaren 21ean 13 urte bete zituelako. Guraso eta anaiaren partez.



◆ Zorionak **Olatz Albarrani** maiatzaren 20an 20 urte bete zituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Itziar Aldalurri** hilaren 25ean 3 urte bete zituelako. Muxu handi bat denon partez.

◆ Zorionak **Iosu Espillari** maiatzaren 24an 5 urte beteko dituelako. Musu haundi bat familia osoaren partez, batez ere Aneren partez.



◆ Zorionak **Lara Uraini** hilaren 15ean 10 urte bete zituelako. Ahizpa Ane eta gurasoen partez.

◆ Zorionak **Lucia Zabaletari** gaur, hilak 22, 7 urte bete dituelako. Familia guztiaren partez.



◆ Zorionak **Miren Mugerzari** hilaren 24an 9 urte beteko dituelako. Gurasoen eta Aitorren partez.

◆ Zorionak **Sara Arriolari** maiatzaren 21ean urteak bete zituelako. Arriolarren partez.



◆ Zorionak **Txamari!** Maiatzaren 23koa orain arteko saiorik gogorrena izango al dok? Baina lasai! Temple oneko bertsolariok egoki asmatzen baituzue egoera berriei onena ateratzen. Egur ona pasa eta eman zorionak Idoiarri ere, aurrerantzean bera izango baituk ofiziotako laguna. Elgoibarko Izarrako lagunak.

◆ Zorionak **aita** maiatzaren 23an urteak beteko dituzulako. Familia guztiaren partez, bereziki Oselen partez.



◆ Gure **Munaun** ere ezkondu egiten zaigula maiatzaren 23an. **Aitor** aldamean hartuta Mutriku aldeira ihes egingo digu. Gure partetik egun polita pasa dezazuela eta ea zorientasunaren haizea ekartzen dizuen parean daukazen Kantauri itsasoak. **BARRE**Neko lagunak.



◆ Zorionak **Amaia** hilaren 20an 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez. Ea seigarrena ere orain

bezain ondo betetzen duzun!

◆ Zorionak **Amaia De Castorri** maiatzaren 25ean 9 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Amaia Martinez**i hilaren 24an 20 urte beteko dituelako. Gurasoen partez egun ona igaro dezazuela.

◆ Zorionak **Eider Elorzari** hilaren 26an 19 urte beteko dituelako. Muxu handi handi bat eta orain arte bezala jarrai dezala. Guraso eta ahiz-



pen partez.

◆ **Iñaki** eta **Izortze**, portau zerate! Gu zahartzen geranerako Egoitz koskortuta eta guri erreleboa hartzeko prest egongo da. Ekainean Berasetan egingo dugun afarian plater bat gehiago ipini eta behar den bezala ospatu-



LYZAIDE

KAFETEGIA
JATETXEA

Mendarozabal, z/g
Tel: 943 75 51 44-75 61

MENDARO

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak




Uztailen
Ikosten, trinkak, elkarrekin.
Mila urteko, emenez zuzen (telebista)

Informazio

Tel. 37
Fax 37 1 5
E-mail s.t.s

HIZKUNTZA
IKSTIK
TZEILIN
(17 urteko
erakuntzetan)



Hizkuntza S... l... k



IMI Erakuntza
Sindikatuak, 1-37
27 ELGI (Guzk)





KENSINGTON

UZTAILA

- 1, 2 edo 3 ORDU
- MAILA GUZTIAK
- BIDEOA - ORDENAGAILUA -
MUSIKA - INTERNETA
- INTENTSIBOAK
- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
- UZTAILAREN 1 ETIK 30 ERA
- METODOLOGIA LUDIKOA

98-99 IKASTURTEA

- INGELESA
- FRANTSESA
- ALEMANA
- ITZULPENAK



- Internet
- Multimedia

Cambridge Unibertsitateko
azterketetako kide ES-438
KET - PET - First Certificate
Advanced - Proficiency

MATRIKULA ZABALIK

ZATOZ!!

- 4 URTEK GORAKO UMEENTZAT
- METODOLOGIA LUDIKOA
- CAMBRIDGE UNIBERTSITATEAN
TITULATUTAKO IRAKASLEGOA
- TALDE HOMOGENEOAK
- 25 URTEKO ESPERIENTZIA ENPRESETAN
(HOBETUZ SUBENTZIOA)



GIPUZKOAKO HIZKUNTZ
IRAKASLE ELKARTEKO
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR
TEL/FAXA: 943 74 02 36
TEL: 943 74 35 12
E-MAIL: kensington@redestb.es

EGUZKI AUZOA, 7
20577 ANTZUOLA
TEL: 943 78 70 30